



BEGI BARNERAKO KORTIKOIDEAK ERABILTZEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA USO DE CORTICOIDES INTRAVÍTREOS

A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:
..... Data:

B.- INFORMAZIOA:

Kortikoideak begietan emateak horien eraginkortasuna hobetzen du eta, batzuetan, botikak eraginkorrak izateko modu bakarra da. Era ambulatorioan egiten da, kontsultategian zein ebakuntza-gelan ematen dira, anestesia lokala jarrita. Prozeduraren helburua eraginkortasuna handitzea da. Izan ere, gaixotasunak sendatzeko edo arintzeko behar diren medikamentu batzuk begitik behar bezala sartzen dira eta dosia nahikoa izango da. Hala, pazientearen infekzioa zein hanturazko edo endekapenezko prozesua sendatzeko aukerak handitzen dira.

Gaur egun kortikoidea denbora luzean askatzeko bi gailu ditugu: OZURDEX® Dexametasonarekin eta ILUVIEN® fluozinolona azetonidoarekin.

C.- ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

Interbentzio orok dauka arriskuren bat. Botika begi barruan jarri ondoren, honako hauek jakinarazi izan dira: endoftalmitisa, begietako hantura, begi barruko presioa areagotzea eta ikusmen-asaldurak (ikusmena galtzea barne). Begi barruko presioa handitzea izaten da konplikaziorik ohikoena. Pazienteen % 25-35 bitartean gertatzen da. Iragankorra izaten da (aurreko balioetara itzultzen da 180. egunean), eta laser bidezko tratamendua hartu edo ebakuntza egin behar izaten da kasuen % 0,7-5 bitartean. Endoftalmilitisa edo begi barruko infekzioa izanez gero, tratamendu urgentea egin behar da, ikusmena nabarmen galtzea eragin dezakeen patologia larria delako. Katarata ere gerta liteke (% 4), injekzioaren traumatismoak edo erabilitako medikamentuak berak eraginda.

A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:
..... Fecha:

B.- INFORMACIÓN:

La administración de corticoides en el ojo mejora su eficacia, siendo en ocasiones, la única vía por la que éstos pueden ser efectivos. Se realiza ambulatoriamente, en consulta o en quirófano con anestesia local. El objetivo del procedimiento es aumentar la eficacia, al conseguir que determinados medicamentos necesarios para la curación o alivio de la enfermedad, penetren en el ojo de manera eficaz y a dosis suficiente; aumentando así las posibilidades de obtener la curación de la infección o proceso inflamatorio o degenerativo que afecta al paciente.

Disponemos en la actualidad de dos dispositivos de liberación prolongada de corticoide: OZURDEX® con Dexametasona e ILUVIEN® con acetónido de fluocinolona.

C.- RIESGOS Y COMPLICACIONES:

Toda intervención comporta algún tipo de riesgo. Tras la administración intravítrea, se han notificado casos de endoftalmitis, inflamación ocular, aumento de la presión intraocular y alteraciones visuales incluyendo pérdida de visión. La elevación de la presión intraocular es la complicación más frecuente, produciéndose en un 25-35% de los pacientes, suele ser transitoria (vuelve a los valores previos en el día 180) y precisa tratamiento laser o cirugía en un 0,7%-5%. La endoftalmitis o infección intraocular (\approx 0,20%) requiere tratamiento urgente por ser una patología grave que puede acarrear pérdidas severas de la función visual. Se puede producir catarata (4%), por el traumatismo de la inyección o por acción del propio medicamento utilizado.



Gutxitan gertatzen diren beste konplikazio batzuk ere badaude, ikusmena nabarmen murriz dezaketenak, esate baterako, odol-galera eta erretina-askatzea. Hauek ere gerta daitezke: konjuntibako odoljariora (% 20), begietako mina (% 7), konjuntibako injezioa (% 7), gorputz beirakara askatzea (% 3) eta buruko minak (% 3).

Gutxitan gertatzen diren bestelako konplikazioak ere badaude deskribatuta, baina ez ditugu testu honetan sartu, gehiegi ez luzatzeagatik. Hala ere, nahi baduzu, oftalmologoari galdetu ahal dizkiozu.

Anestesia lokalaren arriskuak:

Alterazio orokorrak gerta litezke (zorabiodun krisi bagalak, hipotentsioa eta takikardiak) eta, kasu jakin batzuetan, injezioa bertan behera utzi behar izaten da, eta geroago berriro saiatu.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

D.- JAKINARAZ IEZAGUZU:

Honako hauen berri eman behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazio-asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, oraingo botikak edo beste edozein inguruabar; izan ere, arrisku edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete.

E.- ARRISKU PERTSONALIZATUAK

Baliteke pertsona bakoitzaren ezaugarri bereziek eta gaixotasunek (diabetesa, hipertentsio arteriala, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna eta larritasuna handitzea. Medikuek zure kasuan izan daitezkeen arriskuak jakinarazi dizkizu.

F.- BESTELAKO AUKERAK:

Baliteke tratamendurik ez jasotzea, baina hura gabe patologia ikusmena bizkor eta larriki galtzea eragin dezake. Zure kasuan KORTIKOIDEA besterik ez duten beste farmako batzuk ere badaude. Egoera jakinetan, egokia izan liteke erretinako ebakuntza proposatzea.

Existen otras complicaciones poco frecuentes, pero susceptibles de provocar una disminución de visión importante como pueden ser el sangrado y el desprendimiento de retina. También, pueden darse hemorragia conjuntival (20%), dolor ocular (7%), inyección conjuntival (7%), desprendimiento de vítreo (3%) y cefaleas (3%).

Existen descritas otras complicaciones infrecuentes no incluidas en este texto dada su extensión, que podrán ser comentadas por su oftalmólogo si usted lo desea.

Riesgos de la anestesia local:

Se pueden producir alteraciones generales (crisis vagues con mareos, hipotensión, taquicardias), que en determinados casos obliga a suspender la inyección que puede reintentarse con posterioridad).

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

D.- AVISENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

E.- RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico/a le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

F.- ALTERNATIVAS:

Puede no recibir tratamiento, sin embargo, sin él la patología puede causar pérdida de visión rápida y severa. Existen otros fármacos que no aportan más que el CORTICOIDE en su caso. En algunas situaciones concretas se podría indicar cirugía de retina.



Datuak babesteari buruzko oinarritzko informazioa: Interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetzak tratatuko dituela. HISTORIA KLINIKOA tratamenduaren helburua da pazientearen historia klinikoaren datuak izatea, pazientearen jarraipena egiteko eta jarduera asistentziala kudeatzeko, interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz egindako misio bat betez. Baliteke datuak hauei jakinaraztea: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, GSIN, agintari judizialak eta aseguru-entitateak. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzako profesional sanitarioek eman dituzte. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, webgune honetara jo dezakezu:

<https://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa/>

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos/>

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN ONDOREN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU OSTEAN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN.

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea/ El/La Paciente

Pazientearen izen-abizenak

Nombre, dos apellidos

.....

Sinadura eta data

Firma y fecha



Medikua/EI/La Médico/a

Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

Sinadura eta data

Firma y fecha

Legezko Ordezkarria: pazientea ezgaituta badago edo adingabea bada / Representante legal: en caso de incapacidad del/de la paciente o menor de edad.

Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NANA eta ahaidetasuna

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del/de la representante legal.

Sinadura eta data

Firma y fecha

Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del/de la paciente o representante legal

Ukertzen dut zenbaiterainoko irismena eta arriskuak dituen adierazitako prozedura EZ BETETZEAK. Eta baldintza horietan erabiltzen dut atzera egiteko eskubidea.

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

.....

Sinadura eta data

Firma y fecha